

artikulu bat agindu dit Violantek

Artikulu bat eskatu dit ARGIAtik Josu Landak. Baietza eman diot derrefente. Eta baietzarekin hasi zaizkit larritasunak. Zertaz idatzi?

Zertaz idatziko diat?, galdetu dut inguruan. Heuk ikus, gure herrian gairik ez zaik faltako behintzat!, erantzun didate.

Hasi naiz gai-bila. Nondik jo? Nere interesei, nere zaletasunei, nere kezkei errebasoa ematen hasi naiz.

Nazioarteko politikaz? Interesatua nago, edo egona naiz behintzat. Makina bat artikulu argitaratua dut Anaitasuna-n. Baina honako ez zait egokiena iruditzen. Behin idatziko eta... Zeinek espero du, gainera, artikulu politiko bat nere izenaren pean?

Beste nonbaitetik jo beharko dut. Lan soziologikoren bat? Azken baten hauxe da nere espezialitatea. Badut «in mente» lantxo bat, egokia. Hasi nartzai bueltak ematen... baina gordinegi dut oraindik.

Errazeneri, agian egokienari, eta seguru irakurleak nigandik espero duenari, helduko diot: euskal kulturari. Bale. Zein gai, ordea? Gaurkotasuna ere behar du... Badakit.

Euskal liburugintza. Azterketa txiki bat egingo dut, eta, bidebatez, liburu-politikaren falta gogor salatuko. Baina ez, ez da egoki ARGIA ere gai berarekin ateratzea. Izan ere, oraintxe aterako den Jakin-en zerbait iazko liburugintza aztertzen dut luze. Atzo bertan A. Haranburu izan nuen Deiarako entrebista bat egitera etorria. Liburuaren eguna dela-eta, Egin-etik ere zertxobait eskatu didate Apirilerako. Gehiegi da.

Beste gai bat, beraz. Bada beste bat: Mitxelena jaunaren eraso UZEIren eta euskararen normalizaziogintzan dabilen hainbat jenderen aurka. Gai egokia da berez. Baina hain berandu natorrelarik, originaltasun apur batez zer esan? Artikulu hartako irainen gehiegia eta planteoen eskasia salatuko banitu, bestek eta neronek esandakoa

errepikatu besterik ez nuke egingo. Beldur naiz, gainera, «madarikazioen» beldur. «El miedo, señores...»

(Banoa aurrera. 31 lerro idatziak ditut jadanik. Josu Landarekiko konpromisoa betea dut berehala).

Gai berriagoren bat behar dut. Hara! aurkitu dut: Euskararen Aholku-Batzordea. Aukerako gaia da. Bai, baina... datorren Jakin-en Joan Altzibarek izenpetzen duenarekin bat natorrenez, han esandakoaz gain ez nuke deus berririk asmatuko, alegia, Batzorde hori guk dauzkagun arazo larrienen konponketarako ez dela egokiena, joera eta talde batzuen diskriminazioa egin dela, eta lastima dela hizkuntz plangintza egin ahal izateko aukera berri bat galtzea.

Benetan suerte txarra izan dut oraingo honetan: nere uesteko gairik kezagarrienak beste nonbaiten erabiliak ditut eta gai berririk ezin aurkitu. Gai berririk? Bada bat, ezin berriagoa, «berriegia», azken ordukoa eta oraindik bukatu gabea: HABEren auzia. Zer esan? Goizegi da eritzi finkatu baten jabe izateko. Ez dakit nik irakasleek «ongi» jokatu duten ala ez. Kasurik txarrean ere ez litzateke hori okerrera neretzat. Grabeena eta sintomatikoena beste zerbait iruditzen zait neri: istilu horregatik HABE likidatzeraino gertu dagoen agintearen postura, politzien presentziak konbentziti-problematik ekar dezakeenik ere ulertzen ez dutenen itsukeria, Euskal Herriaren kontraesan larrienetako bat HABEren pentzutara «soluzionatzea» utzi duten politikoen begirik-eza (edo beste zerbait), arrazakeria eta antzeko salakuntzak egin dituztenen borondate gaiztoa. Hori oraingoz. Gero gero-koak.

Lasaitu naiz pittin bat. Artikulua aurrera doa, bukatzeaz dago. Josuri emandako hitza ez dut jan: ez zidan gairik eskatu, artikulu bat eskatu zidan. Dena den, zertaz idatzi ez dakidala esanez artikulu bat idaztea ere bada, ba! Horretan ere ez naiz lehena,

ez bakararra. Nere burua zuritzeke. Lope de Vegaren soneto famatua aipatuz dezaket, lekuri bada:

Un soneto me manda hacer Violante
y en mi vida me he visto en tal aprietito;

catorce versos dicen que es soneto,
burla burlando van los tres delante.
Yo pensé que no hallara consonante,
y estoy en la mitad de otro cuarteto,
mas si me veo en el primer terceto,
no hay cosa en los cuartetos que me espante.

Por el primer terceto voy entrando,
y aun parece que entré con pie derecho,

pues fin con este verso le voy dando.
Ya estoy en el segundo y aun sospecho
que estoy en los trece versos acabando.

Contad si son catorce y está hecho.

P.D.: Gairik ez? Izateko, erne egotea aski da. Artikulu-gai ezin oparagoa (eta mingarriago!) eman dit gaur goizean (martxoak 11) Etxenike Sailburuak SER irrati honelatsu mitzuratut denean: «Euskal kultura eta kultura espainola ez dira elkarren etsaiz elkarren osagarri baizik». Noski. «Berroja Orixe bezanbat euskal idazle aguretzat». Noski baietz. «Aukeratu eman behar dugu, ez inposaketarik erdaraz bizi nahi duena, bizi dadila erdaraz; eta euskaraz bizi nahi duena, euskaraz». Noski baino noskiago. Dena tonu horretan.

Eta gu hainbeste urtetan euskal kultura, esukaraz ardarrikatzen. «Hizkuntz burruka» aipatzen genuen gaur batetan. Gaur «hizkuntz burrukatik elkarbizitze goxora» etorri dira euskaraz eta espainola. Ikusi besterik ez dago euskaraz egin dituen aurrera-pausuetan administrazioan, eskoletan, kalean, telebistan, irratiari, prentsa idatzian, alderdi politikoetan...

Ai euskararen paraderoa! «Irlanderaren paraderoa» idatzi zuen norbaitek. Berdin da.